



AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ HASIERA EMATEN BAITZAIO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASTETXEEN IZEN GENERIKOAK EZARTZEN DITUEN ARAU-XEDAPEN OROKOR BAT EGITEKO PROZEDURARI, ETA ERREGISTRO-INSKRIPZIOEI DAGOZKIEN IZENDAPENEN ERABILERA ARAUTZEN BAITA, IKASTETXEAK HEZKUNTZA-ADMINISTRAZIOAREKIN DUTEN HARREMANEAN IDENTIFIKATZEKO ETA PUBLIZITATEA EGITEKO.

Ekainaren 30eko 6/2022 Legeak, xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzkoak, II. kapituluaren (12. artikulua) xedatzen du xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren inguruan eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko dela. Halaber, 13. artikuluan, prozedura hasteko agindu honen baldintzak eta gutxieneko edukia ezartzen dira.

Une honetan, beharrezkoa da agindu bat egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen izen generikoak ezartzeko, eta haien erregistro-inskripzioei dagozkien izendapenen erabilera arautzeko, ikastetxeak identifikatzeko, hezkuntza-administrazioarekin duten harremanean, eta publikitatea egiteko.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren IV. tituluan ikastetxeak arautzen dira. Hala, ikastetxe publikoen izendapenari dagokionez (111. artikulua), ezartzen du haur-hezkuntza eskaintzen duten ikastetxeak haur-eskola deituko direla; lehen hezkuntza eskaintzen dutenak, lehen hezkuntzako ikastetxe; derrigorrezko bigarren hezkuntza, batxilergoa eta lanbide-heziketa eskaintzen dutenak, bigarren hezkuntzako institutu; eta haur-hezkuntza eta lehen hezkuntza eskaintzen duten ikastetxe publikoak, haur-hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikastetxe. Gainera, ezartzen du hezkuntza-administrazioek erabaki ahal izango dutela aurrez definitutakoei modu distintu irakaskuntza taldekatuak eskaintzen dizkieten ikastetxe publikoen izena. Artikulu horretan bertan xedatzen denez, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei zuzendutako irakaskuntzak eskaintzen dituzten ikastetxeei, baldin eta ikastetxe arruntan aniztasunari erantzuteko neurrien esparruan erantzun ezin bazaie, hezkuntza bereziko ikastetxe deituko zaie. Bestalde, ikastetxe pribatuen izendapenari dagokionez, 2/2006 Legeak (114. artikulua) ezartzen du zentro horiek edozein izen hartu ahal izango dutela, ikastetxe publikoei dagokiena izan ezik edo horiekin nahastea eragin dezakeena izan ezik.

Era berean, 2/2006 Lege Organikoak ezartzen duenez, arte plastikoetako eta diseinuko irakaskuntza profesionalak eskaintzen dituzten ikastetxeak arte-eskolak izango dira, eta ikasketa profesionalak eta, hala badagokio, oinarrikoak, musikakoak edo dantzakoak, kontserbatorioak.

Goi-mailako arte-irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe publikoei dagokienez, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan araututako arte-irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeen gutxieneko baldintzak ezartzen dituen martxoaren 15eko 303/2010 Errege Dekretuaren 17. artikulua xedatzen du zein izango diren irakaskuntza horiek emango dituzten ikastetxe publikoen izen orokorrak. Aurrekoaz gain, 4. paragrafoan ezartzen du hezkuntza-administrazioei dagokiela artikulu horretan definitutakoez bestelako taldekatutako goi-mailako hezkuntzako irakaskuntzak eskaintzen dituzten ikastetxe publikoen izena zehaztea.

Goi-mailako arte-irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe pribatuen kasuan, martxoaren 15eko 303/2010 Errege Dekretuaren 2. artikulua xedatzen du zentro horiei, oro har, ikastetxe baimendu deituko zaiela, eta izendapen horrekin batera ikastetxeak ematen duen irakaskuntzari dagokiona ere jasoko dela.

Lanbide-heziketako ikastetxeei dagokienez, 2/2006 Legeak 39. artikuluan 5. paragrafoan ezartzen duenez, Lege horretan araututako lanbide-heziketako ikasketak bertan arautzen diren ikastetxeetan egin ahal izango dira, bai eta Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 11. artikuluan aipatzen diren modu profesionaleko eta erreferentzia nazionalako ikastetxe bateratuetan ere.

1.- XEDEA ETA HELBURUA

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak hezkuntza-administrazioei ematen die musika- edo dantza-ikasketak ematen dituzten eskolak arautzeko eskumena, balio akademikoa edo profesionala duten tituluak lortzera bideratzen ez badira. Hezkuntza-administrazio honek, bere eskumenak erabiliz, Euskal Autonomia Erkidegoko musika- eta dantza-eskolei buruzko maiatzaren 21eko 64/2024 Dekretua argitaratu zuen 2024ko ekainaren 12an. Horren arabera, egun dauden musika-eskolak ez ezik, dantza-eskolak eta musika- eta dantza-eskolak ere arautzen dira.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, ikastetxeen izen generikoak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko otsailaren 4ko Aginduaren bidez ezartzen dira. Hala ere, ez dantza-eskolak ez musika- eta dantza-eskolak (64/2024 Dekretuaren bidez arautuak) ez daude jasota 2016ko otsailaren 4ko Aginduaren eranskinean.

Era berean, indarrean dagoen araudi autonomikoan jasota ez dauden zentroetarako izendapen generikoak sartzeko beharra egiaztatu da. Hori da ekainaren 7ko 1/2024 Legeak, goi-mailako arte-irakaskuntzak arautzen dituenak eta arte-irakaskuntza profesionalen antolamendua eta baliokidetasunak ezartzen dituenak, ezartzen duen ikastetxe-tipologiaren kasua, zeinak izendapen orokor berriak sartzeko baititu irakaskuntza horiek ematen dituzten ikastetxeentzat. Hain zuzen ere, 22. artikuluan, lege horrek izen orokor bereziak ezartzen ditu goi-mailako arte-irakaskuntzak ematen zituzten ikastetxe publikoentzat eta aipatutako legearen arabera araututakoaren ondorioz ematen dituztenentzat. Era berean, xedatzen du hezkuntza-administrazio eskudunei dagokiela ikastetxe horiek zer izen izango duten zehaztea, baldin eta goi-mailako hezkuntzako irakaskuntzak, definitutakoak bestelakoak, eskaintzen dituzten ikastetxe publikoen kasuan.

Bestalde, ikastetxe bakoitza modu unibokoan identifikatzeko beharrak, eskaintzen duen titulartasuna edo hezkuntza-maila edozein dela ere, ikastetxe bat eta bestea zehatz-mehatz bereiztea ahalbidetzen du, eta, horrela, datuen kudeaketa eta administrazio- eta hezkuntza-mailako izapideak errazten dira. Horretarako, eta indarrean dagoen araudiarekin bat etorritik, ikastetxe baten izena dagokion izen generikoa izango da (ematen duen hezkuntza-mailaren, graduaren, zikloaren edo irakaskuntza-modalitatearen arabera), izen espezifikoarekin batera. Hala ere, Hezkuntza Administrazio honek egiaztatu duenez, batzuetan, ikastetxeen identifikazioak erabilera komuneko izen espezifikoetara jotzen du, eta horien bidez ikastetxea ezaguna da, eta ez da izen generikorik erabiltzen, ezta ikastetxearen koderik ere. Praktika horrek nahasmendua sor dezake ikastetxe hori identifikatzeko orduan, batez ere kontuan hartuta bi ikastetxek izendapen espezifiko bera izan dezaketela, betiere hezkuntza-etapa berak ematen ez badituzte edo udalerrri desberdinetan kokatuta badaude.

Beraz, egokia da arau-xedapen orokor bat egitea, bi helburu argi dituen:

1. Indarrean dagoen araudi autonomikoan jasota ez dauden unibertsitateaz kanpoko ikastetxe moten izen orokorrak ezartzea.
2. Ikastetxeen erregistro-inskripzioari dagozkion izenen erabilera arautzea, identifikatzeko, hezkuntza-administrazioarekiko harremanetan, eta publizitatea egiteko.

2.- PROPOSATUTAKO ARAUDIAREN EDUKIA

Proiektatutako arau-proiektuak sei artikulua, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat, azken xedapen bat eta bi eranskin ditu:

1. artikulua. – Xedea eta aplikazio-eremua.
2. artikulua. – Izen generikoak.
3. artikulua. – Ikastetxeen izena.

4. artikulua. – Ikastetxeen identifikazioa.

5. artikulua. – Hezkuntza-administrazioarekiko harremana eta publizitatea.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA.

Ofizioz eguneratzen dituela proiektatutako araua indarrean sartzearen ondorioz izen generikoa aldatu zaien ikastetxeen erregistro-datuak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeen izen generikoa eguneratzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko otsailaren 4ko Agindua indargabetzea xedatzen duela.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA.

Araua indarrean jartzea zehazten duena.

I. ERANSKINA

Araubide orokorreko eta araubide bereziko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe publikoen izen orokorrak jasotzen ditu.

II. ERANSKINA

Araubide orokorreko eta araubide bereziko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe pribatuen izen orokorrak jasotzen ditu.

3. - BIDERAGARRITASUN JURIDIKOA ETA MATERIALA

Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuaren 1. artikulua xedatzen duenez, Sail horri dagozkio Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 12. artikuluan zehazten diren egitekoak eta jardun-arloak, eta horiek sailburuaren zuzendaritzapean gauzatuko ditu.

Beraz, Hezkuntza Sailari dagokio, bere eskumenak erabiliz, unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen izen generikoa arautzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-eremuan.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129.1 artikulua ezartzen duenez, legegintzako ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala gauzatzean, administrazio publikoek printzipio hauen arabera jardungo dute: beharra, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia. Era berean, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 4. artikulua xedatzen duenez, legegintzako ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala gauzatzean, herri-administrazioek araugintzaren kalitatearen edo erregulazio onaren printzipioen arabera jardungo dute.

Aipatutako xedapenetan ezarritakoa betetze aldera, proiektaturiko araua egiterakoan, aurreikusitako erregulazio onaren printzipioak errespetatu dira, eta jarraian deskribatuko da erregulazio onaren printzipio horiek betetzen direla.

1.- Beharraren eta eraginkortasunaren printzipioa.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua bigarren apartatuan ezarritako premia- eta eraginkortasun-printzipioek Administrazioa bideratzen dute beharrezkoak ez diren neurriak alde batera uztera eta bere helburuekin koherenteak eta beharrezkoak diren neurriak aplikatzera. Ildo horretan, proiektatutako agindua egitea guztiz justifikatuta dago interes orokor baten ondorioz; izan ere, EAEko ikastetxeen izendapen orokorrak ezartzen dituen araudi autonomikoa egokitu behar da, bai eta izendapen horien erabilera arautu ere, ikastetxe bakoitza modu unibokoan identifikatzeko.

2.- Proporzionaltasun-printzipioa.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua hirugarren apartatuan honako hau xedatzen da: "Proporzionaltasun-printzipioaren arabera, proposatzen den ekimenak arauarekin bete beharreko beharrari erantzuteko ezinbesteko erregulazioa jaso beharko du, eskubideak gutxiago murrizten dituzten edo hartzaileri betebehar gutxiago ezartzen dizkieten beste neurririk ez dagoela egiaztatu ondoren.

Printzipio horri jarraiki, proposatutako helburuetarako ezartzen den araubide juridikoak beti izan behar du herritarrentzat kalterik txikiena eragiten duena.

Proiektaturiko aginduak ez du esan nahi, inola ere, herritarrek neketsuak direnik.

3.- Segurtasun juridikoaren printzipioa.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua laugarren apartatuak honako hau ezartzen du: "Segurtasun juridikoaren printzipioa bermatze aldera, araugintza-ekimena modu koherentean gauzatuko da gainerako ordenamendu juridikoarekin, nazionalarekin eta Europar Batasunekoarekin, arau-esparru bat sortzeko, egonkorra, aurreikusteko modukoa, integratua, argia eta ziurtasunezkoa, hura ezagutzea eta ulertzea erraztuko duena, eta, ondorioz, pertsonen eta enpresen jardura eta erabakiak hartzea erraztuko duena".

Proposatutako arauaren idazketa argia da kontzeptuei eta xedapenei dagokienez, eta bat dator indarrean dagoen araudiarekin (Europakoa, naziokoa eta autonomikoa), eta beharrezko segurtasun juridikoa sortzen du.

4.- Gardentasun-printzipioa.

Bosgarren apartatuan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua honako hau ezartzen du: "gardentasun-printzipioa aplikatuz, administrazio publikoek aukera emango dute indarrean dagoen araudira eta horiek egiteko prozesuari dagozkion dokumentuetara sarbide erraz eta eguneratua izateko, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, argi eta garbi definituko dituzte arau-ekimenen helburuak eta horien justifikazioa hitzaurrean edo zioen azalpenean, eta aukera emango die hartzaileri izan daitezkeenei ekimen horien lanketan parte-hartze aktiboa izateko".

Hasten den arauaren izapidetzeak gardentasun-printzipio hori betetzen du, eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua 133.1 artikuluan ezarritakoa bete da. Artikulu horrek ezartzen duenez, erregelamendu bat egin aurretik, aurretiazko kontsulta publiko bat egingo da. Aurretiazko kontsulta publikoaren izapide hori 2025eko urriaren 9tik 29ra egin zen,

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren **Egoitza Elektronikoa** iragarkitaulan, eta ez zen alegaziorik edo ekarpenik jaso herritarren, erakunde publikoen, erakundeen, entitateen edo elkarten aldetik, arau-proiektuaren eraginpean egon zitezkeenik.

5.- Efizientiaren printzipioa

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129.6 artikulua honako hau ezartzen du: "eraginkortasun-printzipioa aplikatuz, arau-ekimenak beharrezkoak ez diren administrazio-kargak edo karga osagarriak saihestu behar ditu, eta baliabide publikoen kudeaketa arrazionalizatu behar du aplikatzean".

Printzipio hori aplikatuz, agindu-proiektuak alferrikako administrazio-kargak edo karga osagarriak saihesten ditu.

4.- ORDENAMENDU JURIDIKOAN DUEN ERAGINA

Araugintza-ekimen hori modu koherentean hartzen da gainerako ordenamendu juridikoarekin, autonomikoarekin eta estatukoarekin, eta ziurtasuneko arau-esparru bat sortzen laguntzen du, eragindako pertsonen eta erakundeen jarduna eta erabakiak hartzea erraztuko duena. Araua, gainera, bat dator honako arau hauekin:

3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena.

17/2023 Legea, abenduaren 21koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzkoa. Azkenik, ordenamendu juridikoko beste arau batzuekiko koherentzia bermatzen da dagozkion xedapen indargabetzaileen eta azken xedapenen bidez.

5.- ARAU-PROIEKTUAREN AURREKONTU-ERAGINA

Arau berriak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuetan finantza- eta aurrekontu-eraginik ez duela uste da, zuzenean.

Agindu honek ez du dirulaguntzen programarik garatzen, eta, beraz, kasu honetan, ez da egokia programen betetze- eta betetze-mailaren ebaluazioa egitea.

Era berean, adierazi behar da proiektatutako arauak ez duela zuzenean edo zeharka eragiten enpresen eraketan, abian jartzean eta funtzionamenduan, EAEko hezkuntza-administrazioaren eskumen-eremuan.

Agindu horrek ez du inolako eragin ekonomikorik izango ez beste administrazio batzuetan, ez gizartean.

6.- GAIA DELA-ETA EGIN BEHARREKO IZAPIDEAK ETA TXOSTENAK

Arau-xedapen orokorrak egiteko administrazio-prozedura arautzen duen ekainaren 30eko 6/2022 Legeak ezarritako sekuentziara egokituko da projektaturiko arauaren izapidetzea. Lege horrek izapideen sekuentzia bat ezartzen du, etorkizuneko arauak oinarri objektibo batean finkatzeko, teknika juridiko egoki batekin formulatzeko eta gizartearen aldeko erantzuna lortzeko. Horretarako, horiek lantzeak eskatzen duen hausnarketa-prozesuan, erakundeen eta gizartearen parte-hartzea erraztu eta legitimatzen laguntzen duten elementu eta parte-hartze guztiak txertatzen ditu, antolamendu-funtzioa, ulergarritasuna eta txertatzen diren ordena juridikoa osatzen duten

printzipio eta arauetikiko koherentzia ahalbidetzeko eta legitimatzeko. Horrela, segurtasun juridikoa eta ordenamenduaren eraginkortasuna bermatzen dira.

Era berean, Gobernu Kontseiluak 2025eko maiatzaren 13an egindako bilkuran onartutako arau-xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko oinarritzko ereduan jasotako aginduak beteko dira. Eredu hori Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren maiatzaren 20ko 54/2025 Ebazpenaren bidez argitaratu zen (EHAA, 100. zk., 2025eko maiatzaren 29koa), eta Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 24. artikuluan xedatutakoa betetzen da. Arau-xedapena Tramitaguneren bidez izapidetuko da, helburu horrekin garatutako aplikazio informatikoaren bidez. Beharrezkotzat jotzen da, gutxienez, honako organo hauen nahitaezko txostenak eta/edo irizpenak biltzea (XOEPLren 19. artikulua):

1. Hezkuntza Saileko Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzaren txostena, honako gai hauei buruzkoa: oinarri objektiboa, proposatutako arau-testuaren edukia legera eta zuzenbidera egokitzea, eta araugintza-teknikaren jarraibideak betetzea, eta hori guztia XOEPLren 7.3 artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 10.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.
2. Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiaren nahitaezko legezkotasun-txostena, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 22. artikuluan ezarritakoaren arabera.
3. EMAKUNDE – Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikulutik 22. artikulura bitartekoak aplikatuz.
4. Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, xedapen orokorrekin euskararen erabileraren normalizazioan duten eraginari eta hizkuntzaren arloan indarrean dagoen araudira egokitzeari buruzkoa. Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren 2. artikulua eskatzen du hori.
5. Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren txostena (Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuaren 18.c) artikulua).
6. Euskadiko Eskola Kontseiluari helaraziko zaio, Euskadiko Eskola Kontseiluei buruzko urriaren 28ko 13/1988 Legearen 14.b) artikuluan, martxoaren 7ko 55/1989 Dekretuaren 9.3.b) artikuluan eta 1990eko apirilaren 4ko Aginduaren 3.b) artikuluan arabera dagokion txostena egin dezan.
7. Haurren eta nerabeen gaineko eraginaren ebaluazioa.
8. Generoaren arabeko eraginaren ebaluazioa.
9. Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren txostena, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariaren 2005eko azaroaren 28ko Ebazpenaren bosgarren, 3.b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
10. Ekonomia- eta araudi-kontrolari buruzko txostena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak emana, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen III. tituluko III. kapituluaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

11. Europar Batasunean izapidetzea. Xedapena ez da Europar Batasunean izapidetu behar.

12. Aginduzkoa ez den arren, gure ustez, Hezkuntza Ikuskaritzari txostena eskatuko zaio, eragindako barneko eskumen-eremuen parte-hartzea bermatzeko;

Era berean, arau-proiektu honen berri emango zaie Hezkuntza Saileko Ikaskuntza eta Berrikuntza Zuzendaritzari eta Lanbide Heziketako Sailburuordetzari.

Aldi berean izapidetuko dira interesdunari entzutea, jendaurreko informazioa ematea, beste administrazio publiko batzuen parte-hartzea, eta araua egiteko prozeduran beharrezkoak diren instrukzio-izapide guztiak. Era berean, aldi berean eskatuko dira txosten eta irizpen guztiak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena izan ezik, ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritakoaren arabera, horiek gainerako irizpen eta txostenak eskuratu ondoren eskatuko baitira.

Arau-proiektuaren izapidetzea amaitu ondoren, eta Gobernu Kontseiluak onartu aurretik, prozedura osoaren memoria labur bat egingo da, aurrekariak eta egindako izapideak adierazita, 6/2022 Legearen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera.

7.- EUROPAR BATASUNEAN IZAPIDETZEA

Agindu honetan jasotako aurreikuspenek ez dute eraginik merkatu bateratuan lehia askearen arloan, ez baitute inolako eraginik araubide horren pean garatzen diren jarduera ekonomikoetan, eta, beraz, ez da izapidetik egin behar Europar Batasunean.

8.- IDAZKETA ELEBIDUNA EGITEKO METODOA

IZOk, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak, Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala arautzen duen otsailaren 29ko 38/2000 Dekretuaren 4.1 a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, bi hizkuntza-bertsio ofizialen (gaztelania eta euskara) arteko baliokidetasun juridikoaren printzipioa gauzatzeko, araugintza-testua euskarara itzuliko du.

Horregatik guztiagatik,

XEDATU DUT:

Lehenengoa.- Agindu-proiektua egiteko prozedurari hasiera ematea. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen izen generikoak ezarriko dira, eta erregistro-inskripzioei dagozkien izendapenen erabilera arautuko da, ikastetxeak identifikatzeko, hezkuntza-administrazioarekin duten harremanean, eta publizitatea egiteko.

Bigarrena.- Proiektu hori egiteko prozedurak Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legean ezarritakoari jarraitu beharko dio, eta beharrezkotzat jotzen diren izapide eta txostenak bete beharko ditu, Aholkularitza Juridikoaren txostenak horretarako ezartzen duenaren arabera.

Hirugarrena.- Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza izendatzea legegintza-prozedura hau izapidetzeko organo arduradun.

Laugarrena.- Agindu honen berri ematea *Legesarea* lankidetzaren eremuaren bidez, aipatutako arau-xedapen orokorrak izapidetzeko eremuan aurreikusitakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan

Hezkuntzako sailburua
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO